PDF irisgarria

Irakurketa Errazean

Etulain Hilerriko Hobia

Etulain Hilerriko Hobia

Anuen dago, Nafarroan.



Mapa honetan kolore gorrian
Anue non dagoen ikus dezakezu.

1936. urteko Estatu Kolpea eta gero
frankistek San Kristobal Gotorlekua preso politikoak,
hau da,frankismoaren aurka zeuden pertsonak
espetxeratzeko erabili zuten.

1938ko maiatzaren 22an
preso asko gotorlekutik ihes egin zuten.
Ia inork ez zuen muga gurutzatzea lortu.

Fermina Iraizozek dioenaren arabera
Falangeko zenbait pertsonak
3 preso atxilotu zituzten
ihes egiten saiatzen ari zirenean.
Falangea partidu frankista bat zen.

Landagainera eraman zituzten
eta bertan hil eta lurperatu zituzten.

1999. urtean
errepidean obrak egin zituzten
eta lurra ateratzean
3 pertsona hauen gorpuzkiak aurkitu zituzten.
Gorpuzkiak Etulaingo hilerrira eraman zituzten.

2019. urtean Aranzadi Zientzia Elkarteak
hilerri honetan
pertsona hauen burezurrak aurkitu zituen.
3 burezurrek bala zulo bat zuten.

Honek esan nahi du
Landagainen San Kristobal gotorlekutik
ihes egiten saiatu ziren presoen
hobi bat egon zela.

Hemen aurkitu zituzten burezurren eta hilerriaren
argazkia ikus dezakezu:

